AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4992

AGINDUA, 2026ko azaroaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako eta Maisu-maistren kidegoetako desgaitasun erreserba txandarako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten duena.

Hezkuntza Sailak, bere eskumenen esparruan eta gobernu hau gidatzen duen «Euskadi, Ondasun Komuna» printzipioari leial izanik, kalitatezko enplegu publikoa sustatu nahi du eta euskal hezkuntza-sistemako irakasleei egonkortasun handiagoa eman, egonkortasun horrek gure gazteen eta, oro har, gure herritarren prestakuntza eta hezkuntza hobetzen lagunduko duelakoan.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeak seigarren xedapen gehigarrian ezartzen ditu iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdietan jarraitu beharreko irizpideak. Hala, ezartzen du administrazio publikoek, salbuespen gisa eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 61.6 eta 7. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez deituko dituztela, 2.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako etenik gabe okupatuta egondako plazak. Aurreikuspen horri lege beraren zortzigarren xedapen gehigarrian jasotakoa gehitu behar zaio, eta, horrez gain, seigarren xedapen gehigarrian jasotako egonkortze-prozesuek beren deialdietan sartuko dituzte izaera estrukturaleko lanpostu hutsak, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen izaera horretako harremana duten langileek aldi baterako betetzen dituztenak.

Legea betez, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, maisu-maistren eta desagertzear dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan.

Deialdi horretan desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-txandarik sartu ez bazen ere, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduan sartu zen (Agindu horren bidez, hautaketa-prozesuetarako deialdia egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, aldi baterako enplegua egonkortzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere). Deialdi horretan, desgaitasuna duten pertsonentzako txandan eskaintzaren plaza guztien ehuneko zazpi eskaini zen, 2022ko irailaren 22ko Aginduaren salbuespenezko prozesuari zegozkionak barne.

Deialdi-agindu horren aurka errekurtsoa jarri zen, eta haren aurka aurkeztutako deuseztasunaren arrazoia desgaitasunagatiko txandatik kanpo uztea izan zen. Prozesu horretan, Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako 4. atalaren 2025eko urriaren 8ko 1264/2025 Epaia eman zen, 3066/2024 kasazio-errekurtsoa baietsiz eta agindu horren 1.3 oinarria deuseztatuz. Hala, administrazio demandatuak desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba bat sartu behar du agindu horretan aipatzen den hautaketa-prozesuan, deitutako plazen ehuneko zazpikoa gutxienez.

Epai hori betez, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena eman zuen, eta, horren bidez, etorkizuneko hautaketa-prozesuetan desgaitasun-txandari egokituko zitzaizkion plazak deitzea erabaki zen, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduan araututako egonkortze-prozesuaren deialdiaren baldintza berberetan (Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren eta desagertzear dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen).

2026ko uztailaren 6ko autoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak adierazi zuen desgaitasuna duten pertsonentzako plazen erreserba, kasu honetan, hautaketa-prozesuaren lehen deialdian egin behar dela, parte-hartzaile guztien berdintasuna bermatuz.

Ondorioz, deialdi honen kausa eta oinarri juridikoa Auzitegi Gorenaren urriaren 8ko 1264/2025 Epaia eta ondoren betearazpen-piezan emandako ebazpenak betearaztea da.

Plaza horiek desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan aplikatuko dira, eta haien esleipena merezimendu-lehiaketaren sistema baten eta 2022ko irailaren 22ko Aginduan ezarritako baldintza bertsuetako deialdi baten arabera arautuko da.

Horretarako, aipatutako Aginduaren bidez deitutako plazen ehuneko zazpi kalkulatu dira, eskainitako plazen kupoa nahikoa den kidegoetan, behin ehuneko zazpi aplikatuta, deialdi honetan eskaintza egokia egin ahal izateko. Ildo horretan, erabaki da ez deitzea Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa, Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoa, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa, plaza gutxi eskaini zirelako eta horietatik ez delako plazarik kentzen desgaitasunagatiko txandarako ehunekoa aplikatuta, edo plaza kopurua hutsala izango litzatekeelako.

Beraz, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta maisu-maistren kidegoetan baimendutako eta aurrekontu-zuzkidura duten plazen ezaugarriak, Auzitegi Gorenaren 1264/2025 epaia, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 70. artikuluan jasotako agindua eta aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legearen aurreikuspenak betez (jatorrizko prozesuaren esparrua osatzen duten arauak), desgaitasuna dutenentzat gordetako txanda bakarrerako adierazitako kidegoetako plazen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egiten da, seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan aurreikusitako baldintzak betetzen baitituzte.

Deialdi hau apirilaren 12ko 270/2022 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautzen da. Errege Dekretu horrek 276/2007 Errege Dekretua aldatzen du, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntza-kidegoetan sartu, kidego horietara iritsi eta espezialitate berriak eskuratzeari buruzko erregelamendua onartzen duena eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotako sartzeko behin-behineko erregimena arautzen duena, eta salbuespenezko deialdi-mota horri buruzko xedapen iragankor bat gehitzen du.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak ezartzen du hautaketa-sistemaren aukeraketa (merezimendu-lehiaketa). Hitzaurrean, besteak beste, alderdi hau azpimarratzen du: karrerako funtzionario edo lan-kontratudun langile finko izateko, beharrezkoa da berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak bermatuko dituen hautaketa-prozesua gainditzea. Aurrerago, legeak dio prozesuek lehia-, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak betetzen direla bermatuko dutela.

Salbuespenezko izaerak aukera ematen dio legeari hautaketa-prozesua merezimendu-lehiaketa gisa eratzeko, behin bakarrik, eta deialdia egin duen hezkuntza-administrazioa merezimenduen baremoa errespetatzera behartzen du, 270/2022 Errege Dekretuak gehitutako bosgarren xedapen iragankorrean ondorioztatzen denez.

Azaldutako guztiagatik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan xedatutakoa betez, eta sail honi esleitutako eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta maisu-maistren kidegoetan desgaitasunagatiko erreserba-txandarako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egitea, Auzitegi Gorenaren urriaren 8ko 1264/2025 Epaia betez.

Bigarrena.– Aipatutako salbuespenezko prozesua arautuko duten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 2a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

OINARRIAK

AURKIBIDEA

I. kapitulua.– Oinarri orokorrak.

1.– Xedea eta plazak.

II. kapitulua.– Parte hartzeko baldintzak.

2.– Parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak.

III. kapitulua.– Parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa.

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak, aurkezteko lekua eta epea.

IV. kapitulua.– Onartutako eta baztertutako izangaiak.

4.– Izangaiak onartzea.

V. kapitulua.– Hautaketa-organoak.

5.– Hautaketa-organoak: Epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak.

VI. kapitulua.– Merezimenduen balorazioa.

6.– Puntuazioaren esleipena eta argitalpena.

VII. kapitulua.– Hautaketa-prozesua gainditzea.

7.– Izangaiak antolatzea eta hautaketa-prozesua gainditzea.

8.– Hautatutako pertsonek egin beharrekoak.

VIII. kapitulua.– Karrerako funtzionarioak.

9.– Karrerako funtzionario izendatzea eta destinoak esleitzea.

IX. kapitulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

10.– Datu pertsonalen tratamendua.

I. KAPITULUA

OINARRI OROKORRAK

1.– Xedea eta plazak.

1.1.– Auzitegi Gorenaren urriaren 8ko 1264/2025 Epaia betez, oinarri hauen xedea jarraitu beharreko prozedura ezartzea da Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako eta Maisu-maistren kidegoetan, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuaren bidez sartzeko. Plazak enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrian aipatutakoak dira.

1.2.– Hautaketa-prozesua merezimendu-lehiaketa sistemaren bidez garatuko da, hau da, parte-hartzaileen merezimenduak baloratuko dira (agindu honen I. eranskinean daude jasota). Prozesuaren kalifikazioa, beraz, aipatutako I. eranskinean aurreikusitako baremoaren arabera emandako puntuen baturak zehaztuko du.

1.3.– 222 plazarako deialdia egiten da, irakasle-lanpostuetako 2. hizkuntza-eskakizuna dutenak, A taldekoak, A1 azpitaldea (Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa) eta A2 azpitaldea (Maisu-maistren kidegoa).

Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandarako deitzen diren plaza horiek 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez onartutako plaza guztien ehuneko zazpi dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Kidegoaren eta espezialitatearen araberako banaketa honako hau da:

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa.

Espezialitatea	Plaza-kopurua
Geografia eta historia	25
Filosofia	10
Fisika eta kimika	17
Matematika	30
Gorputz-hezkuntza	10
Teknologia	10
Plaza-kopurua, guztira	102

Maisu-maistren kidegoa.

Espezialitatea	Plaza-kopurua
Haur Hezkuntza	20
Lehen hezkuntza	58
Ingelesa	10
Gorputz-hezkuntza	10
Hezkuntza berezia: Pedagogia terapeutikoa	22
Plaza-kopurua, guztira	120

II. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.– Parte hartzeko betekizun orokorrak eta berariazko betekizunak.

2.1.– Betekizun orokorrak.

Betekizun orokor hauek bete beharko dituzte hautaketa-prozeduretan onartu ditzaten nahi dutenek:

a) Europar Batasuneko estatuetako bateko nazionala izatea, edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan egotea, eta ondorioz langileen zirkulazio librea aplikatzekoa den estatu batekoa.

Horrez gain, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatuetako nazionalen ezkontideek, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, bai eta Europar Batasunak sinatutako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio librea aplika dakiekeen estatuetako nazionalen ezkontideek, ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta dagokion itunean hala ezarrita badago, edozein nazionalitatetakoak izan arren, baldin eta ezkontideak legez bananduta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan arren, gurasoen ardurapean bizi badira.

b) Hamasei urte izatea eta erretiroa hartzeko oro har zehaztutako adinera oraindik ez iristea.

c) Organo eskudunek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua izatea, edo ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa aitortua izatea irakaskuntzakoa ez den lanbide batean, baldin eta, bi kasuetan, irakaskuntzan aritzeko bateraezintasunik ez badago eta lortu nahi den kidegoari eta espezialitateari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala badu.

d) Aukeratzen diren kidego eta espezialitatearen funtzioetan aritzearekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

e) Zigor-espedientearen bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kendu ez izana, eta funtzio publikoetan aritzeko ezgaituta ez egotea.

f) Aukeratu nahi den kidegoko karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario ez izatea edo karrerako funtzionario izendatua izateko zain ez egotea.

g) Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin parekagarria) egiaztatzea, 1.3 eta 2.4 oinarrien arabera.

Dena den, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren arabera, dekretua indarrean sartzean (1993ko apirilaren 3an) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako/OHOko eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako bitarteko irakasleek eta aldi baterako irakasle kontratatuek, funtzionario izaera lortzen badute, honako epe hau izango dute egiaztatzeko: hiru urteko epea jabetza hartzen dutenetik, euskaraz irakasten ari badira edo euskarazko izendapenarekin irakasten ari badira eta berehalako derrigortasuna duten 2. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaien lanpostuetan hasiko badira.

h) Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea, Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofiziala gaztelania ez duten pertsonen kasuan, 2.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

i) Epai irmo bidez kondenatua ez izatea Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren VIII. tituluan tipifikatutako sexu-askatasunaren eta -ukigabetasunaren aurkako edozein delitugatik, ez eta lege-testu bereko VII bis tituluan tipifikatutako gizakien salerosketaren edozein delitugatik ere.

2.2.– Berariazko betekizunak.

2.2.1.– Betekizun orokor horiez gain, hautaketa-prozeduran onartuak izateko, izangaiek honako hauek bete beharko dituzte:

2.2.1.1.– Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoak.

a) Doktoretza, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza edo Graduko titulua izatea, edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gainditua izatea eta titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

Era berean, irakaskuntzarako baliokidetzat jotzen diren titulazioak ere onartu ahal izango dira (II. eranskinean daude zerrendatuta).

b) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan adierazitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jaso izana, 2.2.2 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

2.2.1.2.– Maisu-maistren kidegoa.

Titulu hauetakoren bat izatea edo titulua lortzeko beharrezko diren ikasketa guztiak gainditua izatea eta titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea:

– Maisu-maistraren titulua edo maisu-maistraren lanbidean jarduteko gaitzen duen gradu-titulua, edozein espezialitatetan.

– Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua.

– Lehen Hezkuntzako maisu-maistraren titulua.

2.2.2.– Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzeko, beharrezkoa da honako titulazio, ziurtagiri edo lanbide-esperientzia hauetakoren bat izatea:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntza-eskola ofizialetan irakasle-lanbide arautuetan aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala.

b) Ondorengo zerrendako edozein titulu edo ziurtagiri, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik aterata:

– Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Trebakuntza Pedagogikoko Ziurtagiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria.

– Maisu-maistra titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-titulua, Lehen Hezkuntzako maisu-maistra titulua, Pedagogiako Lizentziatura edo Psikopedagogiako lizentziatura eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa jasotzen duen lizentziatura edo titulu baliokideren bat.

c) 2008-2009 ikasturtea bukatu aurretik lanean jardun duela ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez –jarraian edo etenekin–, betiere derrigorrezko bigarren hezkuntzako edo batxilergoko, lanbide heziketako edo hizkuntza eskola ofizialetako irakaskuntzetan aritu badira, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan aurreikusten den arabera.

2.2.3.– Titulazioak atzerrian lortu badira, baldintza hauetako bat egiaztatu beharko da:

a) Titulazioaren homologazioa, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuarekin bat etorriko dena. Errege Dekretu horrek titulazio eta ikasketa-maila ofizialarekin homologatzeko eta haren baliokidetzat jotzeko zein ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen ditu, atzerrian egindako goi-mailako ikasketei dagokienez, bai eta kualifikazioen espainiar esparruaren baitako mailen baliokide direnak zehazteko prozedura ere, arkitekto, ingeniari, lizentziadun, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa zein diplomadun goi-mailako titulu ofizialei dagokienez.

b) Lanbidean sartzeko eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortzea, ekainaren 9ko 581/2017 Errege Dekretuaren arabera.

2.3.– Baldintzak betetzea.

Deialdiaren 2.1 eta 2.2 oinarrietan zerrendatutako betekizun guztiak, eta 2.1.g) oinarrian xedatutakoa alde batera utzita, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu arte eutsi beharko zaie.

Deialdiaren 2.1.i) atalean adierazitako betekizuna, epai irmo bidez kondenatua ez izateari buruzkoa, zerbitzuak ematen diren bitartean mantendu beharko da, eta funtzionarioak nahitaez jakinarazi beharko ditu Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan aipatzen diren delituengatik kondenatutako epai irmoak.

2.4.– Irakasle-lanpostuen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

2.4.1.– Deialdiren 2.1.f) oinarrian jasotako baldintza betetzeko, honako titulazio edo ziurtagiri hauetakoren bat izan beharko da, kasuaren arabera:

Irakasle-lanpostuen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailarekin pareka daiteke) egiaztatzeko:

a) Irakasle lanpostuei ezarri zaien 2. hizkuntza-eskakizuna.

b) Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).

c) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoaren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako Euskararen Gaitasun Ziurtagiria edo 5. mailaren ziurtagiria (urtarrilaren 24ko 47/1992 Errege Dekretua) edo euskararen gaitasun-mailaren (C1) ziurtagiria (otsailaren 24ko 46/2009 Dekretua).

d) Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste erkidegoaren bateko hizkuntza-eskola ofizialetako euskararen maila aurreratuko (C1) ziurtagiria (maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretua).

e) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) emandako 3. hizkuntza-eskakizuna.

f) HABEren 3. mailako eta C1 mailako ziurtagiria (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea).

g) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko 3. hizkuntza-eskakizuna.

h) Ertzaintzako 2. hizkuntza-eskakizuna.

i) Euskaltzaindiako D ziurtagiria.

j) Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2. eta 5. artikuluetan zehaztutako betekizunak betetzen duen unibertsitate-titulazioa (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena).

k) Euskararen ezagutza egiaztatzen duten beste titulu edo ziurtagiri batzuk, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 eta C2 mailekin parekatutakoak (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

2.4.2.– Daukan hizkuntza-eskakizuna alegatzea.

Prozesuan parte hartzeko bete behar den eskabidean, daukan irakaskuntzako hizkuntza-eskakizuna alegatu behar da, edo, hala badagokio, egiaztatzeko aldi baterako salbuespen-egoeran legokeen hizkuntza-eskakizuna, 2.1.g) oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena egingo da hautatutakoen zerrenda argitaratu ondoren eta hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena entregatu ondoren, beharrezkoa den kasuetan, 8. oinarrian ezarritakoaren arabera.

2.5.– Gaztelaniaren ezagutza egiaztatzea.

Espainiako nazionalitatea ez duenak eta bere hizkuntza ofiziala espainiarra ez bada, hizkuntza horren ezagutza egokia duela egiaztatu beharko du, titulu edo ziurtagiri hauetakoren bat edukita:

– Espainieraren Goi Mailako Diploma edo espainieraren C2 mailako diploma, urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuak ezarria eta otsailaren 22ko 264/2008 Errege Dekretuak aldatua.

– Atzerritarrentzako espainierako gaitasun-ziurtagiria edo maila aurreratuaren ziurtagiria, hizkuntza-eskola ofizialek emandakoak.

– Filologia hispanikoan edo erromanikoan lizentziadun titulua edo gradu-titulu baliokidea.

– Kidegora sartzeko alegatutako titulua, Espainiako estatuan edo, bestela, hizkuntza ofiziala espainiera duen estaturen batean igorri eta egindakoa.

Egiaztapen horretatik salbuetsita daude Espainiako nazionalitatea ez duten baina hizkuntza ofiziala espainola duen herrialderen batekoak diren pertsonak, baita proba hau aurreko deialdiren batean gainditu izana egiaztatzen dutenak ere.

III. KAPITULUA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

3.– Parte hartzeko eskabidea, tasak, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, tokia eta aurkezteko epea.

3.1.– Parte hartzeko eskabideari buruzko argibideak.

3.1.1.– Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten kidego eta espezialitate bakoitzeko. Interneteko helbide honetan eskuragarri dagoen eskabidea bete beharko da: https://hezigunea.euskadi.eus/ – «EPE 2026. Salbuespenezko egonkortze-prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Onartzeko eskabidea».

Eskabidea betetzean, hartu izanaren adierazpena sortuko da (Erakunde laguntzailearentzako alea), esleitutako eskabide-zenbakia eta tasa 3.2.a) oinarrian aurreikusitako moduan ordaintzeko beharrezko diren datuak barne hartuta. Halaber, izangaiak frogagiria ere eskuratuko du (Interesdunarentzako alea).

Eskabidea bete ondoren, Hezigunearen atarian (https://hezigunea.euskadi.eus/) argitaratuko da hautaketa-prozesuan zehar izangai bakoitzaren espedientearen inguruko informazio guztia, erabiltzailea (NANa) eta pasahitza sartuz.

Hezkuntza Sailak emandako pasahitza baduten izangaiek hori erabili beharko dute aipatutako informazioaren berri jasotzeko (pasahitz hori lehendik izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezpenetarako izangaien zerrendan daudenek eta beste prozesuren batean parte hartu dutenek). Pasahitza ahaztu edo galdu badute, beste bat lortu ahal izango dute aipatutako Hezigunearen atarian, «Pasahitza ahaztu dut» izeneko atalean.

Izangaiek ez badute pasahitzik, sistemak bat esleituko die prozesuaren informazioa eskuratu ahal izan dezaten; pasahitz hori SMS baten bidez jasoko dute, eskabidean adierazitako telefono mugikorrean, eskabidea betetzen bukatzen dutenean. Izangaiaren NANa izango da erabiltzailea.

3.1.2.– Izangaiek «Adingabearen babesa» izeneko atala bete beharko dute eskabidean, 2.1.i) oinarrian aurreikusitako baldintza betetzen dutela egiaztatzeko. Apartatu hau betez, adieraziko da ea baimena ematen zaion Hezkuntza Sailari, hautatuak izanez gero, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikuluan aipatzen den ziurtagiria bere izenean eskuratzeko. Baimenik eman ezean eta hautatuak izanez gero, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, 8. oinarrian adierazitakoaren arabera.

Hala ere, baimen hori aurretiaz eman dutenek ez dute aipatutako atala ikusiko eskabidean. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezpenetarako izangaien zerrendan daudenek eta Euskal Autonomia Erkidegoko karrerako funtzionario direnek aurretiaz eman ahal izan dute baimen hori.

3.2.– Tasak.

Martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bateginaren 36. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, deialdi honetan parte hartu ahal izateko, izangai bakoitzak izena emateko tasa ordaindu beharko du eskabide bakoitzeko. Tasa hori honako hau da: 20,68 euro.

Eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira tasak, eta bi moduetako bat aukeratu ahal izango da horretarako:

a) Jarraian aipatzen diren bankuetako edozein sukurtsaletan zuzenean ordaintzea, erakunde laguntzailearentzako frogagiria aurkeztuz: Laboral Kutxa, Kutxabank (BBK-Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja Vital Kutxa eta Gipuzkoa Donostia Kutxa), BBVA, Santander, Sabadell-Guipuzcoano, Bankia, La Caixa, Bankoa edo Nafarroako Rural kutxa. Inprimakiek barra-kodea dutenez, kutxazain automatikoaren bidez egin daiteke ordainketa, irakurketa optikoarekin edo datuak eskuz atzemanez.

b) Online ordainketa: Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabidearen bidez, sistemak berak erakusten dituen jarraibideei jarraituz, eskaera betetzean. Ordainketa mota horren bitartez, ez da alferreko joan-etorririk egin behar eta ez da ilaran itxaron behar. Gainera, eguneko 24 orduetan erabil daiteke.

Ez da beharrezkoa izango tasa ordaindu izanaren frogagiririk ematea. Azterketa egiteko parte-hartzeko eskubideak ordaindu ezean edo epez kanpo ordainduz gero, izangaia prozesutik baztertuko da. Ordaindutako zenbatekoa ez badator bat ordaindu behar zenarekin, hamar egun balioduneko epean zuzendu ahal izango da, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Banku-erakundean tasak ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den denboran eta eran, oinarri honetan adierazitako moduan, betetzeko izapidea.

3.3.– Parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

3.3.1.– Parte hartzeko eskabidea aurkezteko ezarritako epe berean, eskabidea aurkeztu ondoren, agindu honen I. eranskinean aurreikusitako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia aurkeztu beharko da. Kontuan hartu beharko da ofizioz zenbatzen ez diren merezimen-

duak eta, ofizioz zenbatzeko modukoak izan arren, Hezkuntza Sailaren Langileen Erregistroan jasota ez daudenak egiaztatzeko agiriak bakarrik alegatu eta aurkeztu beharko direla. Horretarako, izangaiek egiaztapena egin beharko dute. Aipatutako I. eranskinean, ofizioz zenbatzen diren merezimenduak zehazten dira dagozkien epigrafeetan.

Egiaztapen hori egiteko, izangai bakoitzak bere espediente pertsonalean dagoen informazioa kontsultatu beharko du, https://hezigunea.euskadi.eus/ helbidean (sartu «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza») – Eremu pertsonala – Nire datu laboralak, honako atal hauetan:

– Zerbitzu-orria.

– Tituluak, gaikuntzak eta ziurtagiriak (atal honetan espediente akademikoaren batez besteko nota ere agertu ahal izango da).

Ikastaroei dagokienez, helbide honetan bertan kontsultatu beharko da: https://hezigunea.euskadi.eus/ (sartu «erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «pasahitza») – Eremu pertsonala – Nire prestakuntza – Nire ikastaro guztiak ikusi.

2012tik deitutako hautaketa-prozeduretan oposizio-fasea gainditzeari buruzko merezimenduari dagokionez, informazio hori Langileen Erregistroan jasota ez badago ere, ez da ziurtagiririk aurkeztu beharko hautaketa-prozedura horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitu baditu.

Hezigunearen atariko informazioa eskuratzeko: (https://hezigunea.euskadi.eus/), erabili beharko den pasahitza pertsonak beste prozesu batzuetan (ordezkapenetarako izangaien zerrendak, etab.) parte hartzeagatik daukana izango da, edo, bestela, pasahitzik ez dutenentzat, sistemak eskabidea betetzean sortu duena, 3.1.1 oinarrian adierazitakoaren arabera.

3.3.2.– Dealdiren 3.4 oinarrian adierazten diren lekuetan bete eta entregatu beharko da «Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. EPE 2026» eta egiaztagiriak. Frogagiri horretan, dokumentazioa zer atal zehatzi buruz entregatuko diren adierazi beharko da, bai eta zer egiaztagiri aurkezten diren ere.

3.3.3.– Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren espediente akademikoaren batez besteko nota baloratu ahal izateko, titulua atzerrian lortu duten izangaiek, merezimenduak aurkezteko epea agortu ondoren, beste hogei egun natural izango dituzte titulua eman zuen herrialdeko Hezkuntza Administrazioak karrera osoan lortutako kalifikazioen batez besteko notaren ziurtagiria eman dezan. Horrez gain, Espainiako kalifikazioekiko baliokideak zehazteko, atzerriko sistema akademiko horretan lor daitezkeen kalifikazio gorenak zein diren ere adierazi beharko du.

3.3.4.– Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko dira gaztelania edo euskara ez den hizkuntzaren batean emandako dokumentu guztiak. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta soilik I. eranskineko III.2 ataleko merezimenduei dagokienez (etengabeko prestakuntza), justifikazio-agiriak dagokion hizkuntzan aurkeztu ahal izango dira.

3.3.5.– Nolanahi ere, Administrazioak parte hartzen duten izangaiei beharrezko argibideak eskatu ahal izango dizkie zalantzak edo erreklamazioak eragin dituzten agiriei buruz. Era berean, aurkeztutako agirien jatorrizko dokumentuak erkatzeko eskatu ahal izango zaio izangaiari. Jato-

rrizko dokumentuaren eta haren kopiaren artean zuzendu ezin den edozein desberdintasun egonez gero, alegatutako merezimendua ez da baliozkoa izango, horrek ekar dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Izangaiek beren-beregi hartzen dute beren gain aurkeztutako dokumentuen egiatasunaren gaineko erantzukizuna. Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatuta badago, izangaiak galdu egingo du deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

3.4.– Merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko lekua.

Merezimenduen egiaztagiriak («Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. EPE 2026» frogagiriarekin batera), Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide honen bidez entregatu beharko da:

https://hezigunea.euskadi.eus/ («erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Merezimenduak entregatzea»

Dokumentazioa adierazitako helbideen bidez entregatuko da, pdf formatuan eta entrega hori egiteko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehaztuko diren jarraibideen arabera; entrega amaitu eta erregistratu beharko da, jasota gera dadin.

3.5.– Eskabideak eta merezimenduak justifikatzeko dokumentuak aurkezteko epea.

Deitutako prozeduran parte hartu nahi dutenek hogei egun balioduneko epea izango dute, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, 3.1 oinarrian adierazten den parte-hartzeko eskabidea betetzeko.

Epe berean, eskabidea aurkeztu ondoren, merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, 3.3.1. oinarrian aurreikusitako kasuetan.

IV. KAPITULUA

ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIAK

4.– Izangaiak onartzea.

4.1.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du gehienez ere hilabeteko epean, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartutzat emateko, eta zerrenda hori non azalduko den adierazteko.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrenda interesdunei jakinarazteko, Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena»

Zerrendan, izangai bakoitzak zein kidego eta espezialitatetan parte hartzen duen adieraziko da, bai eta, kanporatuz gero, baztertzeko arrazoia ere.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onesten duen ebazpena adierazitako lekuan argitaratuta, interesdunei behar bezala jakinarazi zaiela ondorioztatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.2.– Erreklamazioak.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; gainera, hala badagokio, zuzendu ahal izango da zerrendatik baztertzea eragin duen akatsa. Halaber, beren datu pertsonalak jasotzean akatsak atzeman dituztenek epe horretan bertan hori adierazi ahal izango dute.

Erreklamazioak Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaizkio, eta 4.1 oinarrian adierazitako ebazpenean esaten diren lekuetan aurkeztuko dira.

Baldin eta interesdunak ez badu adierazitako epe horretan zuzentzen zerrendatik baztertzea eragin zuen akatsa, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluak xedatutakoaren arabera.

4.3.– Lehentasun-hurrenkera zehaztea, irakasle-kidego bereko edo desberdineko espezialitate baterako baino gehiagorako eskabideak aurkezten badira.

Salbuespenezko hautaketa-prozesu honetarako eskabide bat baino gehiago egin bada irakasle-kidego bereko edo desberdineko espezialitate desberdinetarako, izangaiak espezialitate eta kidego batean baino ezingo dira hautatu. Horretarako, espezialitate batean baino gehiagotan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendetan daudenek lehentasun-ordena adierazi beharko dute eskatutako espezialitateen artean. Lehentasun-hurrenkera izangai bakoitzak aukeratu beharko du, «Kontsulta pertsonalizatuak» atalaren bidez. Atal horretara: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda», onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko ezarritako epe berean.

Kautelaz, espezialitate batean baino gehiagotan baztertuta daudenek ere lehentasun-hurrenkera adierazi beharko dute, baldin eta baztertuaren aurkako erreklamazioa aurkezten badute.

Eskatutako espezialitateen artean lehentasun-hurrenkera zehaztu ezean, eta espezialitate batean baino gehiagotan hautatuak izateko aukera izanez gero, puntuaziorik handiena lortu duten espezialitatean soilik hautatuak izango dira, eta puntuazio bera lortuz gero, eskabidea lehenengoz aurkeztu duten espezialitatean, aurkezpen-data eta –ordua kontuan hartuta.

4.4.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen baten bidez onartu edo ezetsiko dira aurkeztutako erreklamazioak. Ebazpen horretan, onartutzat joko da onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

Bai ebazpena bai behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendarako adierazitako leku bereran argitaratuko dira.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Beraz, onartutako pertsonek prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 8. oinarrian jasotako agiriak aurkeztu beharko dira eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da, baita mediku-azterketa gainditu ere.

V. KAPITULUA

HAUTAKETA-ORGANOAK

5.– Hautaketa-organoak: epaimahaiak eta hautaketa-batzordeak.

5.1.– Hautaketa-organoek hautatuko dituzte prozedura honetan parte hartzen dutenak.

Hautaketa-organoetan parte hartzea nahitaezkoa da, hargatik eragotzi gabe 5.5 oinarrian abstenitzeko edo errefusatzeko arrazoiei buruz eta 5.2.2 oinarrian salbuespen-kasuei buruz ezarritakoa.

Iruzurrezko jarduerak egiten badira organoetako kide ez izateko, edo kideak justifikaziorik gabe bilkuretara joaten ez badira, eraketa-bilkurara barne, epaimahaiburuak edo batzordeburuak deitu baditu, eta prozesuan zehar beren betebeharrak betetzen ez badituzte, dagokion erantzukizuna eskatuko zaie.

Organo horien jarduteko prozedurak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoa beteko du une oro.

5.2.– Epaimahaiak.

5.2.1.– Epaimahaien kopurua.

Behar adina epaimahai izendatu ahal izango dira, espezialitate bakoitzean dagoen eskatzaile kopuruaren arabera.

5.2.2.– Osaera eta izendapena.

Epaimahaiak bost kidek osatuko dituzte: epaimahaiburu bat eta lau epaimahaikide. Bostek izan beharko dute irakasleen funtzionarioen kidegoetako jarduneko karrerako funtzionario edo hezkuntzako ikuskari. Izangaiek zein kidegotara iritsi nahi duten, kidego horren sailkapen-maila bera edo handiagoa duten kidegoetakoak izango dira kideak, eta gehienak kidego horretakoak izango dira.

Osaeran, espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da; printzipio horren arabera, kideen gehiengoak hautaketa-prozesuaren xede den espezialitatearen titularra izan beharko du. Halaber, arrazoi oinarrituek eta objektiboek eragozten ez badute, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hezkuntzako sailburuak askatasunez izendatuko du hautaketa-epaimahaien epaimahaiburua. Epaimahaikideak zozketa bidez aukeratuko dira, oinarri honen aurreko bi paragrafoetan aipatzen diren karrerako funtzionarioen artean. Hala ere, titularren kopuruak zozketa egitea eragozten duen espezialitateetan, Hezkuntzako sailburuak zuzenean izendatuko ditu espezialitate horien titularrak diren karrerako funtzionarioak, espezialitate horietako epaimahaietako bokal gisa.

Epaimahai bakoitzerako ordezko kide kopuru bera izendatuko da, irizpide berberei jarraituz.

Zozketa Lakua-2 eraikinean egingo da (sarbidea Donostia kaleko 1. zenbakitik, Vitoria-Gasteiz), eta egin aurretik iragarriko da data.

Hezkuntzako sailburuak agindu bidez izendatuko ditu epaimahaiak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bi hilabeteko epean gehienez ere, izangai onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Epaimahaietan parte hartzetik salbuetsita egongo dira, eta, beraz, zozketa-ekitaldian ez dira kontuan hartuko, hautaketa-prozeduran zehar honako kasu hauetan dauden karrerako funtzionarioak:

a) Kidegoan zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera.

b) Funtzionario irakasleei irekitako Administrazio Orokorreko lanpostuan aritzea.

c) Zuzendari, ikasketa-buru eta idazkari karguetan aritzea 2026-2027 ikasturtean.

d) Ikasturte osorako ordaindu gabeko baimena, 2026-2027 ikasturtean.

e) Partzialki ordaindutako baimena 2026-2027 ikasturtean.

f) Lanaldia murrizteko baimena 2026-2027 ikasturtean.

g) Ordezkaritza sindikaleko eginkizunak betetzeagatiko lizentzia, lanetik erabat liberatzea dakarrena, 2026-2027 ikasturtean.

h) Seme-alaben jaiotzagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko, edo edoskitze-aldia metatzeagatiko lizentzia.

i) Haurdunaldiko arriskuagatiko lizentzia.

j) Aldi baterako ezintasun lizentzia, iraupen luzekoa. Dagokion medikuak emandako aldian behingo gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasun-egoerari dagokionez, horrek ez du epaimahaikide izateko betebeharretik salbuesten. Zirkunstantzia horrek eragindako funtzionarioa epaimahaiko titular edo ordezko gisa izendatua izan bada eta hautaketa-prozesua hasi baino lehen alta lortzen badu, hautaketa-prozesuan sartu beharko du.

Zozketan aipatutako egoeraren batean dauden pertsonak izendatu edo aukeratu badira, horiek Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari eskatuko diote salbuestea, hautaketa-organoen izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bost egun balioduneko epean.

Epaimahaietan parte hartzetik ez dira salbuetsiko prozesu honetan karrerako funtzionario gisa dagokien irakaskuntza-kidegoaz bestelako espezialitate batean parte hartzen duten karrerako funtzionarioak.

Epaimahaikideen joan-etorriek eragin ditzaketen kalteak eta eragozpenak minimizatze aldera, zozketa lurralde-mailan egingo da, espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitza egongo den lurralde historikoaren arabera. Baldin eta adierazi den lurralde-irizpidea betez ezin badira epaimahai guztietako epaimahaikide guztiak izendatu, zozketa egingo da, eta gainerako bi lurralde historikoetako karrerako funtzionarioak sartuko dira zozketa horretan. Karrerako funtzionario gutxi dauden espezialitateetako epaimahaietan ere salbuetsi ahal izango da lurralde-irizpide hori.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez erabakiko da zein lurralde historikotan kokatuko diren espezialitate bakoitzeko epaimahaien egoitzak, eta zozketa egin baino lehen argitaratuko da ebazpen hori.

Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiengatik, hezkuntza-arloko beste administrazio batzuei eskatu ahal izango zaie espezialitateko edo, hala badagokio, kidegoko funtzionarioak proposa ditzatela epaimahaietako kide izateko. Salbuespen gisa ere, eta justifikatutako arrazoiengatik, beste espezialitate batzuetako funtzionarioekin osatu ahal izango dira epaimahaiak eta, horrelakoetan, aholkulari espezialistak izendatu ahal izango dira, 5.6 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Epaimahaiak izendatzeko orduan autonomia-erkidego honetako bi hizkuntza ofizialetako hizkuntza-konpetentzia bermatu beharko da.

5.3.– Hautaketa-batzordeak.

Aurkeztutako eskaera-kopurua dela-eta espezialitate baterako edo batzuetarako epaimahai bat baino gehiago eratu behar badira, hautaketa-batzordeak eratuko dira dagozkien espezialitateetarako.

Batzorde horiek espezialitateko epaimahaiburuek osatuko dituzte, gutxienez bost, eta, horrela lortzen ez bada, epaimahai horietako kideek osatuko dituzte, osatu arte, honela:

1) Lau epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiaren epaimahaiburua.

Kideak: 2., 3., eta 4. epaimahaietako epaimahaiburuak eta 1. epaimahaiko idazkaria.

2) Hiru epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiaren epaimahaiburua.

Kideak: 2. eta 3. epaimahaietako epaimahaiburuak eta 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak.

3) Bi epaimahai badaude:

Epaimahaiburua: 1. epaimahaiaren epaimahaiburua.

Kideak: 2. epaimahaiko epaimahaiburua, 1. eta 2. epaimahaietako idazkariak eta 1. epaimahaiko 1. kidea.

Batzorde horietako buru gisa jardungo du espezialitateko beheragoko epaimahaiko epaimahaiburuak, 10 epaimahai edo gehiago eratzen diren espezialitateetan izan ezik; kasu horretan, Hezkuntzako sailburuak izendatuko du burua, Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko jarduneko karrerako funtzionarioen artean.

Epaimahai bakar bat izendatzen den espezialitateetan, epaimahai horrek hautaketa-batzorde gisa jardungo du ondorio guztietarako.

5.4.– Borondatezko parte-hartzea.

Euren borondatez epaimahai bateko kide izan nahi dutenek idazkia aurkeztu beharko diote Langileak Kudeatzeko zuzendariari, 3.5 oinarriaren arabera eskabideak aurkezteko ezarrita dagoen epe berean. Aipatutako organoak ebatziko ditu eskabideak, kide horiek bete behar dituzten baldintzak eta epaimahaien egoitzak kontuan hartuta.

Borondatezko parte-hartze honetatik salbuesten dira 2026-2027 ikasturtean zuzendari, ikasketaburu edo idazkari karguak betetzen dituzten funtzionarioak.

5.5.– Hautaketa-organoetako kideak abstenitzea eta errekusatzea.

Hautaketa-organoetako kideek ezin izango dute parte hartu, eta egiaztagirien bitartez jakinaraziko diote Langileak Kudeatzeko zuzendariari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusten diren inguruabarren batean badaude, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan kidego eta espezialitate bereko hautaketa-probetarako izangaiak prestatu badituzte.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarretan ez daudela agertzeko, berariazko adierazpena eskatuko diete hautaketa-organoetako buruek hautaketa-organoetako kideei.

Era berean, aurreko arrazoietako bat gertatzen denean, interesdunek hautaketa-organoetako kideak errekusatu ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak dagokion baiespen- edo ezespen-ebazpena emango du.

5.6.– Hautaketa-organoak eratzea.

Epaimahaiburuek deialdia egin ondoren, hautaketa-organoak eratuko dira, izendatutako kide guztiak (titularrak zein ordezkoak) bertan daudela, ahal bada behintzat. Hala ere, eratutzat joko dira epaimahaiburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertan badira.

Eratze-saioa aurrez aurre zein telematikoki egin ahal izango da, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera. Ekitaldi horretan bertan izendatuko da idazkaria.

Hautaketa-organoak eratu ostean, ahalik eta lasterren bidali beharko dizkiete, guztiek, eratze-aktak (kide guztien sinadurekin) Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari. Honako kide hauek egon beharko dute organoaren jarduera baliozkoa izateko: epaimahaiburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak.

Epaimahaikideen artean kidegoan antzinatasun txikiena duen pertsona arituko da idazkari, hautaketa-organoak bestelakorik erabaki ezean.

Hautaketa-organoek aukera izango dute haien lanean aholkulari espezialistak edo laguntzaileak sartzea proposatzeko. Langileak Kudeatzeko zuzendariak izendatuko ditu. Lehenengoen eginkizuna izango da epaimahaiko kideei aholkularitza ematea beren espezialitateko merezimenduak ebaluatzeko. Laguntzaileek, aldiz, organoek esleituko dizkieten laguntza-zeregin teknikoak egingo dituzte. Batzuek zein besteek dagozkien eskumenetako eginkizunak baino ez dituzte egingo. Aholkulari eta laguntzaileek esleitu zaien eginkizunerako behar den lanbide-gaitasuna izan beharko dute.

5.7.– Hautaketa-organoen eginkizunak.

5.7.1.– Epaimahaiei dagokie:

a) Hautaketa-prozesua garatzea, deialdi honetan xedatutakoaren arabera.

b) Baztertzeko proposamena, zeina Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko baitiote, baldin eta jakiten badute izangairen batek ez dituela deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak. Baztertzearen aurretik, entzunaldia emango zaio, eta, era berean, eskaeran egindako zehaztugabetasunak edo faltsutasunak jakinaraziko zaizkio, bidezkoak diren ondorioetarako. Kasu horretan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena eman arte, hautaketa-prozesuan parte hartzen jarraitu ahal izango du, baldintzapean (ad cautelam). Baztertzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Izangaien merezimenduen balorazioa.

d) Hautaketa-batzordeei esleitutako eginkizunak, halakorik ez dagoenean.

5.7.2.– Hautaketa batzordeei dagokie:

a) Epaimahaiak koordinatzea.

b) Epaimahaien jarduteko irizpideak zehaztea eta irizpide horiek homogeneizatzea.

c) Izangaiak ordenatzea eta prozesua gainditu dutenen adierazpena egitea.

d) Prozesua gainditu duten izangaien zerrendak egin eta onartzea, eta zerrenda horiek deialdia egin duen organoari helaraztea.

5.8.– Beste organo batzuen lankidetza: koordinatzaileak.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak Hezkuntzako Ikuskarien artean izendatutako koordinatzaileen laguntza izan dezakete hautaketa-organoek, aipatutako hautaketa-organoen koordinazioko eta administrazio-laguntzako eginkizunak betetzeko. Eginkizun horiek betetzean, prozesua behar bezala garatzen dela zainduko dute, eta, zeregin horietarako, epaimahaiekin lankidetzan jardungo dute, prozesuaren administrazio- eta antolaketa-kudeaketarekin lotutako orientabideak emanez, eta abar, garatzeko tresnak emanez, prozesuan sor daitezkeen zailtasunak edo gorabeherak konpontzen lagunduz, eta epaimahaien funtzionamenduan, jarduketetan eta erabakietan irizpide-homogeneotasuna bultzatuz.

5.9.– Kalte-ordainak eta dietak.

Agindu honen bidez deitu diren prozeduretan parte hartuko duten hautaketa-organo, koordinatzaile, aholkulari espezialistek eta laguntzaileek eskubidea izango dute zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan zehaztutako kalte-ordainak jasotzeko.

VI. KAPITULUA

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

6.– Puntuazioaren esleipena eta argitalpena.

6.1.– Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako administrazio-unitateek esleituko diete izangai bakoitzari I. eranskineko I. eta II. ataletako eta III.1 azpiataleko merezimenduengatik dagokion puntuazioa, epaimahaiak eskuordetuta.

6.2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte burututako merezimenduak baino ez dira baremat uko.

6.3.– Lehiaketan izangai bakoitzak gehienez ere 15 puntu lor ditzake bere merezimenduak baloratzeagatik.

6.4.– Lehiaketan lortutako puntuazioen publizitatea.

6.4.1.– Deialdiaren I. eranskineko I. eta II. ataletako eta III.1 azpiataleko merezimenduak (Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek baloratuak).

Espezialitate guztietako izangaiek aipatutako ataletan lortutako puntuazioen behin-behineko zerrenda hemen argitaratuko da:

https://hezigunea.euskadi.eus («Erabiltzailea (NAN/AIZ» eta «Pasahitza» sartuta) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» –«EPE 2026.Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – Adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaitzak» – «Lehiaketa-aldia» –«Partziala».

Argitaratzeko data, Kidego eta espezialitate guztietarako bateratua izango dena, aldez aurretik iragarriko da web-orri honetan: (https://hezigunea.euskadi.eus/). Halaber, sms-ak bidaliko dira izangai bakoitzaren mugikorrera (eskabidean adierazia), informazioa emateko, eta argitalpen horren berri emango da.

Behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Erreklamazio horiek Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: (https://hezigunea.euskadi.eus/) (sartu «Erabiltzailea (DNI/AIZ)» eta «Pasahitza») – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» –«EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Merezimenduak (LKZ): Erreklamazioak eta zuzenketak entregatzea».

Puntuazioen behin betiko zerrenda, erreklamazioak aztertu ondoren, behin-behineko zerrenda argitaratu den moduan argitaratuko da.

Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek esleitutako behin betiko puntuazioak epaimahaiei helaraziko zaizkie.

6.4.2.– I. eranskineko III.2 azpiataleko merezimenduak (Epaimahaiek baloratuak).

Espezialitate bakoitzeko izangaiek aipatutako atalean lortutako puntuazioen behin-behineko zerrendak dagokion epaimahaiak argitaratuko ditu, iragarki-taula honetan:

https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartu behar dira) – Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Administrazio-izapideak – «EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Epaimahaiak» – «Iragarki-taula».

Behin-behineko zerrenden aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Erreklamazio horiek dagokion espezialitateko epaimahaiko buruari zuzenduko zaizkio, eta aipatutako Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: https://hezigunea.euskadi.eus (sartu «Erabiltzailea» eta «Pasahitza») – Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Administrazio-izapideak – «EPE 2026. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua. Desgaitasun-txanda» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Epaimahaiak» – Erreklamazioak.

Puntuazioen behin betiko zerrendak, erreklamazioak berrikusi ondoren, behin-behineko zerrendak argitaratzen diren leku beretan argitaratuko dira.

Behin-behineko eta behin betiko zerrendak epaimahai bakoitzak argitaratuko ditu, baremazio-lanak eta erreklamazioak berrikusteko lanak amaitu ondoren, kasuaren arabera. Argitaratzeko data barematu beharreko parte-hartzaile kopuruaren araberakoa izango da, eta, beraz, espezialitate bakoitzaren baremoa une desberdinetan argitaratu ahal izango da. Behin-behineko zerrenda eta behin betiko zerrenda argitaratzen diren unean, dagokion epaimahaiak sms-ak bidaliko ditu izangai bakoitzaren mugikorrera (eskabidean adierazia), informazio – ondorioetarako, eta argitalpen horren berri emango du.

6.4.3.– Behin betiko puntuazioen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, eta, hala badagokio, interesdunek berraztertze-errekurtsoa jarri beharko dute 7. oinarrian aurreikusitako aginduaren aurka.

VII. KAPITULUA

HAUTAKETA-PROZESUA GAINDITZEA

7.– Izangaiak ordenatzea eta hautaketa-prozesua gainditzea.

7.1.– Izangaiak ordenatzea.

7.1.1.– Hautaketa-batzorde edo epaimahaiek, kasuaren arabera, kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak ordenatuko dituzte, merezimenduen balorazioaren bidez lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

7.1.2.– Puntuazioen guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, hurrenez hurren honela ebatziko da:

1. guztizko puntuazio handiena baremoaren atal bakoitzean, bertan agertzen diren hurrenkeraren arabera (1, 2 eta 3).

2. bigarren mailako azpiatal bakoitzean puntuazio handiagoa, baremoan duten hurrenkeraren arabera (1.1, 1.2, 1.3, 1.4, 2.1, 2.2, 2.3, 2.4, 3.1 eta 3.2).

3. puntuazio handiagoa hirugarren mailako azpiatal bakoitzean, baremoan duten hurrenkeraren arabera (2.2.1, 2.2.2, 2.2.3, 2.3.1 eta 2.3.2).

Kasu horietan, atal bakoitzean kontuan hartzen den puntuazioak ezin izango du gainditu baremoan atal bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa, ez eta, azpiatalen kasuan, azpiatalari dagokiona ere, azpiatalik badu, edo, halakorik ezean, sartuta dauden atalari dagokiona ere. Irizpide horiek aplikatzean azpiataletako batek edo batzuek dagokion atalari emandako mailarik handiena lortzen badu, ez dira kontuan hartuko gainerako azpiataletako puntuazioak.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren ikastetxe publikoetako lehen enplegu-harremanaren data, lortu nahi den kidego eta espezialitatean.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoetako lehen enplegu-harremanaren data, lortu nahi den kidegoa ez den beste espezialitate batzuetan.

6. berdinketak jarraituz gero, lehenengo abizenaren ordena alfabetikoa izango da, R letratik hasita, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko urriaren 28ko Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2026-2027 ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien kudeaketa-prozesuan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, bai eta ikasturte horretan zehar egin daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere (2025eko azaroaren 5eko EHAA, 213. zk.).

Emakumeen ordezkaritza % 40tik beherakoa den espezialitateetan, ordena alfabetikoaren ordez, emakumeen lehentasuna erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa, salbu eta lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexuagatiko diskriminatzaileak izan gabe; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Hala ere berdinketak jarraitzen badu, lehen aipatutako ordena alfabetikoa hartuko da kontuan.

7.2.– Hautaketa-prozesua gainditzea.

7.2.1.– Hautatuak izango dira, salbuespenezko deialdi honetan merezimendu-lehiaketa bidez lortu nahi duten kidegoko espezialitaterako lortutako puntuazioaren arabera ordenatu ondoren, eta

alegatutako hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta, lortu nahi duten kidegoaren espezialitatean deitutako plazen kopuru osoaren berdina edo txikiagoa den hurrenkera-zenbakia duten izangaiak, betiere 4.3 oinarriaren aurreikuspena kontuan hartuta.

Hautatutakoen kopuruak ezin izango du gainditu merezimendu-lehiaketa honetarako deitutako plazen kopurua, espezialitate bakoitzean. Eta ezingo dira hautatu merezimendu-lehiaketaren baremoan 0 puntu dituzten parte-hartzaileak.

7.2.2.– Aipatutako jarduerak egin ondoren, hautaketa-organoek edo epaimahaiek, kasuaren arabera, hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak egingo dituzte, espezialitateen eta kidegoen arabera sailkatuta, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari helaraziko dizkiote.

7.3.– Hautatutako izangaien zerrendak argitaratzea.

Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena emango du, hautatutako izangaien behin-behineko zerrendak argitaratzeko, eta zerrenda horiek non jarriko diren adieraziko du.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena eta behin-behineko zerrendak interesdunei jakinarazteko, Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuta).

Behin-behineko zerrenda horien aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, 5 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik Aurrera, zerrenda horietan egon daitezkeen akatsengatik.

7.4.– Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratuko dira Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hautatutako izangaien behin betiko zerrendak argitaratuko dira Interneteko helbide honetan: https://hezigunea.euskadi.eus/ («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuta), interesdunei jakinarazteko.

Agindu horren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

7.5.– Espezialitate bakoitzean hautatutako izangaien behin betiko zerrendekin batera, ordezko izangai hautatuen zerrenda ordenatua egingo da, kopuru berekoa, eta horrela, aurretik espezialitate batean hautatutako pertsonak ez dira inola ere sartuko eskatutako beste espezialitate batzuetako ordezkoen zerrendetan, baldin eta lehentasun-ordena txikiagoa adierazi badute (edo puntuazio txikiagoa badute, lehentasunik adierazi ezean).

Ordezko izangaien hautatutako zerrenda hori erabiliko da aldez aurretik hautatutako izangairen batek izaera hori galtzen badu, honako arrazoi hauengatik:

– Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan aurkeztutako hautaketa-prozeduratik eratorritako eskubideei uko egiteagatik, 8.1 oinarrian adierazitako egunera arte.

– Egon daitezkeen errekurtsoak baiesteagatik.

– Deialdiaren 8. oinarrian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik edo aurkezpenetik ondorioztatzen bada 2. oinarrian eskatutako betekizunen bat ez duela betetzen, edo eginkizunak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko eta psikikoa ez izateagatik.

Arestian aipaturiko hiru kasuetako bat gertatuz gero, ordezkoen zerrendan agertzen den puntuazio-hurrenkeraren arabera hautatutako pertsonen zerrenda osagarria argitaratuko da, eta aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plaza adina izangai hautatuko dira, betiere kontuan hartuta kidego eta espezialitate bakar batean hautatua izateko muga. Beraz, beste espezialitate batean hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan dagoeneko agertzen diren ordezko hautatuak badaude, zerrenda osagarria argitaratu aurretik, 5 egun balioduneko epea emango zaie hautatuak izan ziren espezialitatean jarraitzea edo ordezko izendatu zituzten espezialitatean sartzea hautatzeko. Adieraziko ez balute, lehenengo hautatua izan ziren espezialitatean jarraitzen dutela ulertuko da.

7.6.– Hautaketa-prozesuaren ondorioz plaza hutsak geratzen badira, hautatutako izangairik ez dagoelako edo deitutako plazei dagozkien sarrera-kidegoetako espezialitateetako hautagairik ez dagoelako, deklarazioak, hala badagokio, berekin ekarriko du aurreikustea, behin salbuespenezko deialdi hau ebatzita, plaza horiek handitu ahal izango dutela enplegu-eskaintzak gauzatzean deitzen diren ondorengo hautaketa-prozesuetako plazen kopurua, baldin eta espezialitate berberak baimentzen badira, hutsik deklaratutako plazen beste deialdi berri bat egin beharrik gabe.

8.– Hautatutako izangaiek egin beharrekoak.

8.1.– Dokumentuak aurkeztea.

Hogei egun naturaleko epean, hautatutako izangaien behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, pertsona horiek honako dokumentu hauen kopia aurkeztu beharko dituzte, «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» ereduarekin batera:

a) Nortasun Agiri Nazionala, indarrean dagoena, salbu esanbidezko adostasuna adieraztea Hezkuntza Sailak nortasun-datuak kontsultatzeko, nortasun-datuak egiaztatzeko sistema elektronikoen bidez.

Espainian bizi diren atzerriko izangaiek nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute, bai eta Europar Batasuneko egoiliarraren edo Europar Batasuneko egoiliarraren senitartekoaren indarreko txartelaren fotokopia edo, hala badagokio, Europar Batasuneko egoiliarraren edo mugakide den Europar Batasuneko langilearen indarreko aldi baterako txartelaren fotokopia ere.

Europar Batasuneko gainerako estaturen bateko nazionalitatea duten izangaiek, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalitatea dutenek, atzerrian bizi direlako edo Espainian egonaldi-erregimenean daudelako Espainian bizi ez badira, nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dute.

Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideak diren izangai atzerritarren kasuan, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den estaturen bateko herritartasuna dutenen kasuan, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edo adin horretatik gorakoak izanik mendekoak badira, pasaportearen edo bisaren fotokopia aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, txartela eskatu izanaren edo bisatuaren eta txartelaren salbuespena eskatu izanaren frogagiria Dokumentu horiek eskatu ez badira, hauek aurkeztu beharko dira: agintaritza eskudunek emandako dokumentuak, ahaidetasun-lotura egiaztatzen dutenak, eta Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonaren edo Europar Batasunak sinatutako eta Espainiako Estatuak

berretsitako nazioarteko tratatuen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko herritarraren zinpeko aitorpena edo hitzematea (hain zuzen ere, lotura hori duen pertsonarena), egiaztatzen duena ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela.

b) Zinpeko aitorpena edo hitzematea, honako hauek adieraziz: diziplina-espediente baten bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik kendu ez dutela, funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez dagoela, eta Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasuneko legezko kausaren batean ere ez dagoela.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ez dutela adieraziz.

c) Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo titulu hori lortzeko ikasketa guztiak gainditu direla eta titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen ziurtagiria. Ez dute aurkeztu beharko hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu dutenek edo kontsultatzeko esanbidezko adostasuna ematen dutenek.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, Maisu-maistraren edo dagokion irakaslearen lanbide arautuan sartzeko, kasuaren arabera, eta jarduteko lanbide-kualifikazioa aitortzen duen egiaztagiria edo homologazioa erantsi beharko da.

d) Eskatutako hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzen duten titulazioak edo ziurtagiriak, salbu 2.4.1 oinarriko a), b), c), d), e), f), g), h) eta i) letretan aipatutakoak, irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizunerako, betiere Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude. Aurretik aurkeztutako titulu edo ziurtagiririk ere ez da aurkeztu beharko, baldin eta noiz, zer prozeduratan eta zer organoren aurrean aurkeztu zen adierazten bada.

Prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du Hezkuntza Sailak datu horiek kontsultatu ahal izango dituela Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, parte-hartzaileak berariaz horren aurka egiten ez badu.

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko aldi baterako salbuespen-egoeran daudenek, 2.1.g) oinarrian aurreikusitakoaren arabera, «Hautatuek dokumentazioa entregatzea» ereduan adierazi beharko dute.

e) Deialdiaren 2.5 oinarrian aurreikusitako titulu edo egiaztagiriak, Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizialtzat gaztelania ez duten pertsonen kasuan.

f) Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko izangaien kasuan, 2.2.2 oinarrian aipatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutela egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua, edo, hala badagokio, baldintza horretatik salbuetsita daudela egiaztatzen duen titulua.

Oinarri horrek aipatutako prestakuntzaren baliokidetzat jotzen duen aurretiazko irakaskuntza-esperientzia I. eranskineko I. atalean adierazitako moduan egiaztatuko da.

g) Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko Hezkuntza Sailak datu hori kontsultatzeko berariazko baimena eman dutenek, elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bidez, 3.1.2 oinarrian adierazitakoaren arabera.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute beren jatorrizko herrialdeetan kondenarik ez dutela egiaztatzen duena, aipatutakoen izaera bereko delituei dagokienez.

h) Desgaitasun-maila aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko eskumena duten organoen ziurtagiria, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren arabera, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortzen duena, edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, irakaskuntzakoa ez den lanbide batean ezintasun iraunkor osoa aitortzen duena.

8.2.– Gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean emandako dokumentazio guztiarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da, zinpeko itzultzaileak egina edo dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

8.3.– Aukeratutako kidegoaren eta espezialitatearen eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazteko, eta, horrela, hautatutako pertsonek irakaskuntza-eginkizunak efizientziaz eta autonomiaz bete ahal izango dituztela egiaztatzeko, Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuan osasun-azterketa egiteko hitzordua emango zaie. Gaikuntza hori zehazteko, erreferentziatzat hartuko da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balorazio profesionalerako gida, zeinak lanpostuen zeregin eta eskakizun psikofisikoak definitzen baititu. Azterketa horren emaitza «egokia» edo «ez-egokia» izango da, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara eramango da.

Mediku-azterketara justifikaziorik gabe joaten ez badira, ez gaitzat hartuko dira. Arrazoi justifikaturik badago, beste egun batean joan beharko da azterketa medikora, eta ez dago frogatik behin betiko salbuesteko justifikaziorik.

8.4.– Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duten pertsonek, edo dokumentazio hori aztertuta 2.1 eta 2.2 oinarrietan adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada, karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidean faltsukeria egiteagatik izan dezaketen erantzukizuna. Era berean, beren eskubide guztiak galduko dituzte osasun-azterketan ez-gaitzat jotzen direnek.

Horrelakoetan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak dagokion ebazpena emango du karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubideak galdu direla deklaratzeko.

Ezinbesteko kasuren batean aurkitzen denak berehala jakinarazi beharko dio Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari, idatziz, zuzendaritza horrek balora dezan. Kode Zibilaren 1105. artikuluaren arabera, ezinbesteko kasua aurreikusi ezin diren egoerei buruzkoa da, edo, aurreikus zitezkeen arren, saihestu ezin izan ziren egoerei buruzkoa. Nolanahi ere, ezinbesteko kasuak ez du salbuetsiko baldintzak betetzetik, baina, hala badagokio, aurkezpenarako aurreikusitako epe orokorra gainditu ahal izatea ekarriko du.

VIII. KAPITULUA

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

9.– Karrerako funtzionario izendatzea eta destinoak esleitzea.

Hautatutako pertsonek deialdi honetan ezarritako parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Hezkuntzako sailburuak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du izendapena karrerako funtzionario gisa. Izendatutakoek izendapen-aginduan adierazitako egunean jabetu beharko dute lanpostuaz.

Karrerako funtzionario izateko destinoen behin-behineko esleipena hautatuak izan diren espezialitateko lanpostuetan egingo da edo espezialitate horren bidez lor daitezkeen beste lanpostu batzuetan (esleipen-prozeduran zehaztuko dira), prozesuan lortutako puntuazioaren arabera. Era berean, lanpostuak betetzeko deitzen diren hurrengo lehiaketetan parte hartu beharko dute, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan eta hautatuak izan diren espezialitatean behin betiko lehen destinoa lortu arte.

IX. KAPITULUA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

10.– Datu pertsonalen tratamendua.

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako helburuetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek tratatu eta Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko dira, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza arduradun duen «Hautaketa Prozesuak eta Hornidura» izeneko tratamendu-jarduerari, prozedura hau kudeatzearen ondoriozko administrazio-izapideak egiteko eta aplikatzekoak diren legezko betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua emateko.

Datuen lagapenaren hartzaile izan daitezke, hala badagokio, Estatuko Administrazioko organo eskudunak, Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk, sindikatuak eta langileen batzordeak.

Interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048000-capa1-eu.shtml webgunean kontsulta daitezkeen beste eskubide batzuk ere.

Datu pertsonalen tratamendua, hirugarrenei lagatzea eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (2018ko abenduaren 6ko BOE), Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (EB) eta aplikatzekoa den gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

Eskabideak aurkezteko epearen amaiera-data arte burututako merezimenduak bakarrik baloratuko dira. Merezimendu bat ezin izango da baremoko atal edo azpiatal batean baino gehiagotan baloratu.

Izangaiek ezin izango dute 15 puntu baino gehiago lortu merezimenduen balorazioagatik.

Euskara edo gaztelania ez den hizkuntzaren batean emandako merezimenduen egiaztagiriak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako bateko itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dira. Itzulpenak zinpeko itzultzaileak egina beharko du izan, edo bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua. Salbuespen gisa, hizkuntza modernoetako espezialitateetan, eta III.2 Etengabeko prestakuntza izeneko atalei dagokienez soilik, dagokion hizkuntzan aurkez daitezke egiaztagiriak.

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
I.– Aldez aurreko irakasle-esperientzia	Gehienez 7,000 puntu	
I.1.– Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidegoaren espezialitatean irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0583 puntu gehituko da.	0,700	Zerbitzu-orria, dagokion hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emana, honako hauek jasotzen dituena: lanpostuaz jabetzeko eta uzteko data, kidegoa eta espezialitatea. Halakorik ezean, adierazitako datuak jasotzen dituzten izendapenak, bai eta kargu-uztearen agiria ere. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).
I.2.– Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidego bereko beste espezialitate batzuetan irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0291 puntu gehituko da.	0,350	
I.3.– Ikastetxe publikoetan, izangaiak eskatutako kidegoaz bestelako kidegoetako beste espezialitate batzuetan irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0104 puntu gehituko da.	0,125	
I.4.– Ikastetxe publikoak ez diren beste ikastetxe batzuetan, izangaiak eskatutako kidegoaren hezkuntza-maila edo -etapa bereko espezialitateetan irakaskuntzan izandako esperientzia-urte bakoitzeko. *Hilabete/urte-zati bakoitzeko 0,0083 puntu gehituko da.	0,100	Ikastetxeko zuzendariaren ziurtagiria, eranskin honen amaieran argitaratutako ereduaren araberakoa; bertan, eranskin horretan agertzen diren atal guztiei buruzko informazioa bete behar da. Edo lan-kontratua, betiere informazio guztia jasotzen bada, eta lanpostu-uztearen dokumentua erantsiko da, baldin eta lan-harremana amaitu bada. Halaber, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak (GSDO) emandako ziurtagiria erantsi beharko da, ikastetxearen izena (enpresa) eta alta-aldiak (lan-bizitzaren txostena) jasotzen dituena. Udal musika-eskoletan emandako zerbitzuen kasuan, berariaz adierazi beharko da irakaskuntza arautuetan eman dela. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko eta autonomia-erkidego honetatik kanpoko ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude), Lanbide Heziketako irakaskuntzetan emandako zerbitzuen kasuan izan ezik. Kasu horretan, nolanahi ere, arestian adierazitako eredua aurkeztu beharko da, emandako irakaskuntzei dagokien kidegoa zehazteko.

Oharrak:

I.a) Atal honen ondorioetarako, gehienez ere hamar urte hartuko dira kontuan, eta horietako bakoitza aurreko azpiataletako batean baino ez da baloratuko. Gainera, zerbitzuak ikastetxe batean baino gehiagotan eman badira aldi berean, puntuazioak ezin izango dira metatu.

I.b) I.1, I.2 eta I.3 azpiatalen ondorioetarako, ikastetxe publikotzat jotzen dira hezkuntza-administrazioek sortu eta sostengatutako ikastetxeen sare publikoan sartuta daudenak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006ko Lege Organikoaren IV. tituluko II. kapituluan araututakoak; lege organiko hori Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013ko Lege Organikoak aldatu zuen). Ez dira ikastetxe publikotzat jotzen, ordea, udalen, foru-aldundien edo zuzenbide publikoko beste erakunde batzuen mende daudenak.

I.c) Irakaskuntzako esperientzia-urtetzat hartuko da ikasturte osorako etenik gabeko izendapena edo, bestela, ikasturte berean betetako zerbitzu-aldiak bederatzi hilabetekoak edo gehiagokoak badira.

Hilabete osotzat hartuko dira hogeita hamar zerbitzu-egun, jarraituak izan zein ez.

I.d) Atzerrian emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo eskumen-organoek emandako ziurtagiriak erabiliko dira, eta honako datu hauek jaso beharko dituzte: zerbitzu-aldiaren iraupena, ikastetxea publikoa edo pribatua den, eta zer hezkuntza-mailatan eta zer ikasgaia/espezialitatea irakatsi den. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak txosten osagarriak eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

I.e) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta lege hori aldatzen duen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013ko Lege Organikoan araututako kidegoei irakastea dagokien irakaskuntzan emandako zerbitzuak baino ez dira baloratuko.

Hauek ez dira baloratuko:

– Unibertsitate publiko zein pribatuetan irakasten izandako esperientzia.

– Haur-eskola publikoetan (Haurreskolak Partzuergoko zentroak barne) edo pribatuetan (0-3 urteko zikloa) hezitzaile gisa izandako esperientzia.

– Hizkuntza-laguntzaile lanetan izandako esperientzia.

– Prestakuntza-jarduera osagarriak irakasten izandako esperientzia.

I.f) Irakaskuntza arautuak bakarrik hartuko dira kontuan.

I.g) Erlijio-irakasle gisa ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak I.2 atalean zenbatuko dira, baldin eta lortu nahi den kidegoaren hezkuntza-etapa berean eman badira; edo I.3 atalean, beste hezkuntza-etapa batean eman badira.

Aholkulari gisa ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta Maisu-maistren kidegoko pedagogia terapeutikoko espezialitatera aurkezten bada.

Maisu-maistren kidegoko Hizkuntza-indargarria edo Euskarako irakasle gisa ikastetxe publikoetan egindako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta kidego horretako Lehen Hezkuntzako espezialitatera aurkezten bada.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Hizkuntza-indargarria Irakasle gisa ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta kidego horretako espezialitate hauetako bat lortu nahi bada: Geografia eta Historia eta Filosofia. Adierazitako bat baino gehiago lortu

nahi izanez gero, «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko orria» dokumentuko oharren atalean adieraziko da zein espezialitatetan lortu nahi den puntuazioa I.1 atalean, eta kidego bereko gainerako espezialitatean, berriz, I.2 atalean zenbatuko dira zerbitzu horiek. Adierazi ezean edo oker adierazita (eskabide bat baino gehiagotan espezialitate ezberdinak adierazita, edota espezialitate bat baino gehiago adierazita, adibidez) horietan guztietan zerbitzu horiek I.2 atalean zenbatuko dira.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Curriculum Desberdinak eratzeko (Hizkuntza- eta Gizarte-eremua) irakasle gisa emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta kidego horretako Geografia eta Historia espezialitatera aurkezten bada.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Curriculum Desberdinak eratzeko (Zientzia- eta Matematika-eremua) irakasle gisa emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta aipatutako kidegoko espezialitate hauetakoren bat lortu nahi bada: Fisika eta Kimika, Matematika eta Teknologia. Adierazitako bat baino gehiago lortu nahi izanez gero, «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko orria» dokumentuko oharren atalean adieraziko da zein espezialitatetan puntuatuko den I.1 atalean, eta kidego bereko gainerako espezialitateetan, I.2 atalean zenbatuko dira zerbitzu horiek. Adierazi ezean edo oker adierazita (eskabide bat baino gehiagotan espezialitate ezberdinak adierazita, edota espezialitate bat baino gehiago adierazita, adibidez) horietan guztietan zerbitzu horiek I.2 atalean zenbatuko dira.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Helduen Hezkuntzako (eremu zientifiko-teknologikoa) irakasle gisa emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, baldin eta kidego horretako espezialitate hauetakoren bat lortu nahi bada: Fisika eta Kimika, Matematika eta Teknologia. Adierazitako bat baino gehiago lortu nahi izanez gero, «Merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko orria» dokumentuko oharren atalean adieraziko da zein espezialitatetan puntuatuko den I.1 atalean, eta kidego bereko gainerako espezialitateetan, I.2 atalean zenbatuko dira zerbitzu horiek. Adierazi ezean edo oker adierazita (eskabide bat baino gehiagotan espezialitate ezberdinak adierazita, edota espezialitate bat baino gehiago adierazita, adibidez) horietan guztietan zerbitzu horiek I.2 atalean zenbatuko dira.

Helduen Hezkuntzako (Gizarte Ezagutzaren eremua) irakasle gisa emandako zerbitzuak I.1 atalean zenbatuko dira, Geografia eta Historia espezialitatea aukeratuz gero.

<table>
<tr><th colspan="2">Merezimenduak</th><th>Puntuak</th><th>Egiaztagiriak</th></tr>
<tr><td colspan="2">II.– Prestakuntza akademikoa</td><td>Gehienez 3,000 puntu</td><td></td></tr>
<tr><td colspan="4">II.1.– Kidegoan sartzeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa</td></tr>
<tr><td colspan="2">Espediente akademikoaren batez besteko nota honela baloratuko da:</td><td></td><td rowspan="4">Ziurtagiri akademiko pertsonala, alegatutako titulua lortzeko eskatzen diren irakasgai eta ikasturte guztietan lortutako puntuazioak jasotzen dituena, batez besteko nota berariaz adierazita.
** Ofizioz zenbatetsiko da espediente akademikoaren batez besteko nota (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago).</td></tr>
<tr><td>Notak 0-10 eskalan</td><td>Notak 0-4 eskalan</td><td></td></tr>
<tr><td>6,00 (ongi) eta 7,49 (oso ongi) artean</td><td>1,50 eta 2,24 artean</td><td>1,000</td></tr>
<tr><td>7,50 (bikain) eta 10 (ohorezko matrikula) artean</td><td>2,25 eta 4,00 artean</td><td>1,500</td></tr>
<tr><td colspan="4">II.2.– Graduondokoak, Doktoretza eta aparteko sariak</td></tr>
<tr><td colspan="2">II.2.1.– Ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua), Master Titulu Ofiziala (urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretua, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretua), ikerketarako nahikotasuna edo baliokidea den beste edozein agiri, baldin eta ez badira irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko betekizuna.</td><td>1,000</td><td rowspan="2">Dagokion titulua edo ziurtagiria edo, bestela, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria.
** Ofizioz zenbatetsiko da Master Titulu ofiziala eta Doktore-titulua, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badago.</td></tr>
<tr><td colspan="2">II.2.2.– Doktore-titulua, baldin eta ez bada irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko bete beharreko betekizuna.</td><td>1,000</td></tr>
</table>

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
II.– Prestakuntza akademikoa	Gehienez 3,000 puntu	
II.2.3.– Doktoretzan aparteko saria lortu izana.	0,500	Hori egiaztatzeko ziurtagiria.
II.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk (irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira)		
II.3.1.– Lehenengo zikloko tituluak: Diplomatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Tekniko edo legez baliokidetzat jotako titulu bakoitzeko eta Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza baten lehen zikloari dagozkion ikasketa bakoitzeko. Irakasle funtzionarioen A2 azpitaldeko kidegoetarako izangaien kasuan, ez da atal honetan baloratuko, inola ere ez, izangaiak aurkeztuko duen izaera horretako lehen titulua edo ikasketa-agiria. Irakasle funtzionarioen A1 azpitaldeko kidegoetarako izangaien kasuan, ez dira atal honetan baloratuko, inola ere ez, izaera horretako titulu edo ikasketak, izangaiak aurkeztuko duen Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturaren lehen titulua eskuratzeko gainditu behar izan direnak.	1,000	Kidegoan sartzeko alegatutako titulua eta merezimendu moduan aurkeztutakoak edo, bestela, titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritzako lehenengo zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da; bertan, berariaz adieraziko da ziklo horri dagozkion irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden diplomaturak, ingeniaritza teknikoak, arkitektura teknikoak, lizentziaturak, ingeniaritzak, arkitekturak eta graduak.
II.3.2.– Bigarren zikloko tituluak: Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako bigarren zikloko ikasketak edo legez horien baliokidetzat jotako bestelako tituluak, bai eta Gradu-titulua ere. Irakasle funtzionarioen A1 azpitaldeko kidegoetarako izangaien kasuan, ez da atal honetan baloratuko, inola ere ez, izangaiak aurkeztuko duen Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitekturako lehenengo titulua lortzeko gainditu behar izan diren ikasketak (lehen zikloa, bigarren zikloa edo, hala badagokio, irakaskuntza osagarriak).	1,000	
II.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Berariazko Lanbide Heziketaren tituluak:		
Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko betekizun gisa alegatu ez badira edo, hala badagokio, alegatutako titulua eskuratzeko beharrezkoak izan ez badira; honela baloratuko dira: a) Musika- edo dantza-titulu profesional bakoitzeko. b) HEOren maila aurreratuko ziurtagiri (C1 edo C2) edo baliokide bakoitzeko. Azpiatal honetan zenbatuko dira, halaber, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 edo C2 mailako atzerriko hizkuntza baten ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiriak, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean aurreikusitakoaren arabera (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez eguneratua). c) Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. d) Lanbide Heziketako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko. e) Kiroletako goi-mailako teknikari titulu bakoitzeko.	0,500 0,500 0,200 0,200 0,200	a), c), d) eta e) azpiataletarako, titulua edo emate-eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. b) azpiatalerako, ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, edo titulua/ziurtagiria edo emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden ziurtagiriak/tituluak.

Oharrak:

II.1.– Kidegoan sartzeko alegatu den tituluari dagokion espediente akademikoa.

II.1.a) Eskabidean berariaz alegatu den tituluaren batez besteko nota baloratuko da.

II.1.b) Ziurtagirietan, alegatutako titulua lortzeko eskatzen diren irakasgai eta maila guztietan lortutako puntuazioen batez besteko nota adierazi beharko da.

II.1.c) Ziurtagiri akademiko pertsonalean kalifikazio literala eta zenbakizkoa agertzen badira batez besteko nota gisa, azken kalifikazio hori hartuko da kontuan.

II.1.d) Atzerrian lortutako titulua duten izangaiek, beren espediente akademikoa baloratzeko, ETS (Tituluaren Gehigarri Europarra) eta/edo titulua lortu zen herrialdeko hezkuntza-administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan, karreran lortutako kalifikazioetatik ondorioztatutako batez besteko nota adieraziko da, eta, gainera, dagokion sistema akademikoaren arabera lor daitekeen kalifikazio maximoa eta minimoa adieraziko da, Espainiako kalifikazio-sistemarekiko baliokidetasuna zehazteko. Eta, horrez gain, aurkeztu beharko da «Atzerriko zentroetan egindako unibertsitate-espediente akademikoen batez besteko notaren baliokidetasun-adierazpena» ere. Kalifikazio hori, 2016ko martxoaren 21eko Unibertsitate Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenean xedatutakoaren arabera, doan eskuratu ahal izango da Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren Egoitza Elektronikoan.

II.1.e) Titulutzat bigarren ziklokoa bakarrik den titulazioa alegatzen bada, titulazio horren ziurtagiri akademikoa eta titulazio horretan sartzeko egin den lehen zikloko titulazioarena aurkeztu beharko dira; eta espedienteko batez besteko nota bi titulazioen batez bestekoaren emaitza izango da.

II.1.f) Titulu gisa gradu titulazio bat alegatzen bada, zeina aurreko ikasketa-plan bateko beste titulazio baten bidez lortu den (irakaskuntza berei buruzkoa), gainditutako irakasgai guztien batez besteko nota jasotzen duen graduaren ziurtagiri akademiko pertsonala aurkeztu beharko da (graduko ikasketara sartzeko aurreko titulaziokoak barne); edo, hala badagokio, bi titulazioen ziurtagiri akademikoa, eta azken kasu horretan, espedienteko batez besteko nota bi titulazioen batez bestekoaren emaitza izango da. Kalkulu hori bera egingo da, bien batez besteko nota Langileen Erregistroan agertzen bada.

II.2.– Graduondokoak, Doktoretzak eta aparteko sariak.

II.2.a) II.2 atalean ez dira baloratuko graduondoko ikastaroak, espezializaziokoak, unibertsitate-adituenak, ez eta ofizialak ez diren bestelako unibertsitate-tituluak ere (berezko tituluak), baldin eta unibertsitateek beren autonomia erabiliz ematen badituzte, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean.

II.2.b) Ez da baloratuko irakaskuntza-lanbidean jarduteko gaitzen duen unibertsitate-master titulu ofiziala, baldin eta titulazio hori izangaiak lortu nahi duen kidegoan sartzeko deialdian eskatutako baldintza bada.

II.2.c) II.2.2 atalean doktore-titulua izatea baloratuko da, eta, beraz, doktorego-titulu bakarra baloratuko da.

II.2.d) Ez dira baloratuko titulu ofizialek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten korrespondentzia-adierazpenak, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean emandakoak.

II.2.e) Titulazioak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa aurkeztu beharko da, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, edo lanbide-kualifikazioaren aitorpena, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean.

II.3.– Beste unibertsitate-titulu ofizial batzuk.

II.3.a) Sartzeko betekizun gisa alegatzen den lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura titulua ez den beste titulu bat merezimendu gisa aurkeztuz gero, bigarren zikloko titulu horri dagokion puntuazioa soilik onartuko da II.3.2 atalean. Ikasketa horren lehenengo zikloari dagokion ziurtagiri akademikoa aurkezten bada, ikasketa-planeko irakasgai guztiak gainditu direla adierazten duena, II.3.1 atalean dagokion puntuazioa baloratuko da (aipatutako ataletan adierazi diren salbuespenei kalterik egin gabe).

II.3.b) Titulazioak atzerrian lortu badira, dagokion homologazioa aurkeztu beharko da, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, edo lanbide-kualifikazioaren aitorpena, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren babesean.

II.3.c) Egokitze-ikastaroa gainditzea ez da titulazio baten lehen zikloa gainditzat hartuko.

II.3.d) Titulazio berean dauden espezialitateak ez dira titulu desberdintzat hartuko.

II.3.e) Gradu-titulu berari dagozkion aipamenak ez dira, inola ere, gradu-titulu independente gisa zenbatuko.

II.3.f) Gradu bikoitzeko titulazio bat gainditzea merezimendu gisa alegatzen denean, hura osatzen duten titulazio bakoitzari dagokion puntuazioa emango da.

II.3.g) II.3.2 atalean baloratuko dira Musika, Dantza eta Arte Dramatikoko goi-mailako tituluak, baita gradu-tituluarekiko baliokidetasuna aitortu zaien arte-irakaskuntzetako goi-mailako titulazioak ere.

II.3.h) Ez dira baloratuko titulu ofizialek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten korrespondentzia-adierazpenak, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean emandakoak.

II.4.– Araubide Bereziko Irakaskuntzen tituluak.

II.4.a) II.4.b) azpiatalean aipatzen den HEOko maila aurreratua bat dator maiatzaren 21eko 80/2019 Dekretuan ezarritako C1 maila aurreratuko eta C2 maila aurreratuko ziurtagiriekin (2019/06/26ko EHAA, 120. zk.), bai eta IV. eranskinean ezarritako baliokidetasunekin ere.

II.4.b) II.4.b) azpiatalean ziurtagiri bakarra puntuatuko da hizkuntza bakoitzeko.

II.4.c) Euskararen hizkuntza koofizialaren kasuan, II.4.b) azpiatalean bakarrik baloratuko dira Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila aurreratutik gorakoak diren euskararen ezagutzaren egiaztagiriak.

II.4.d) Hizkuntza baten maila bera erakunde batek baino gehiagok emandako titulu edo ziurtagiri bi edo gehiago edukiz egiaztatzen bada, hizkuntza horren jakite-mailaren egiaztapena behin bakarrik puntuatuko da.

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
III.– Beste merezimendu batzuk	Gehienez 5,000 puntu	
III.1.– Lehiatzen den kidegoko espezialitate berean oposizio-fasea gainditzeagatik (gehienez 5,000 puntu)		
Irakaskuntzako funtzio publikoko kidegoetan sartzeko 2012tik deitutako hautaketa-prozedura bakoitzeko, berau barne, eta parte hartzen den kidegoko espezialitate berean oposizio-fasea gainditu izana egiaztatzen bada: atal honetan, gehienez ere bi prozedura gainditzea baloratuko da.	2,500 bakoitzeko	Hautaketa-prozedura gainditu duen hezkuntza-administrazioak emandako ziurtagiria; bertan, honako hauek jasotzen dituena: deialdiaren urtea, espezialitatea, kidegoa eta oposizio-fasea gainditu izana edo lortutako kalifikazioak. ** Ofizioz zenbatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak deitutako hautaketa-prozesuetan oposizio-fasea gainditu izana.

Merezimenduak	Puntuak	Egiaztagiriak
III.– Beste merezimendu batzuk	Gehienez 5,000 puntu	
III.2.– Etengabeko prestakuntza (gehienez 2,000 puntu)		
Hezkuntza-administrazioek edo unibertsitateek deitutako etengabeko prestakuntza eta hobekuntzako ikastaro gainditu bakoitza, hezkuntza-administrazioen erakunde laguntzaileek antolatutako etengabeko prestakuntzako planean jasotako jarduera bakoitza, eta dagokion hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduera bakoitza: a) Ez 3 kreditu baino gutxiagokoa b) Ez 10 kreditu baino gutxiagokoa Hauekin lotuta egon beharko dute guztiek: lortu nahi duen espezializazioarekin edo eskola-antolamenduarekin, hezkuntzan aplikatutako teknologia berriekin, didaktikarekin, psikopedagogiarekin edo hezkuntzaren soziologiarekin. (*) Azpiatal honen ondorioetarako, bi kreditu baino gutxiagokoak ez diren ikastaroak metatu daitezke, atal honetan finkatzen diren betekizunak betetzen badituzte. Horretarako, gutxienez bi kreditukoak eta hiru baino gutxiagokoak diren ikastaro guztiak gehituta egingo da metatze hori, eta dagokion azpiatalera eramango da emaitza.	0,2000 0,5000	Dagokion erakundeak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria, non berariaz adieraziko baita ikastaroaren kreditu kopuru edo orduen iraupena. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, ez da puntuaziorik lortuko atal honetan. Etengabeko prestakuntzako planean sartutako edo hezkuntza-administrazioak aitortutako jarduerei dagokienez, berariaz jaso beharko da jarduera hori aipatutako planaren barruan dagoela edo hezkuntza-administrazioak aitortuta dagoela. ** Ofizioz zenbatetsiko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak antolatutako ikastaroak, baita sail horren etengabeko prestakuntzako planaren barruan dauden edo Sailak aitortuta dituen jarduerak ere (baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan badaude).

Oharrak:

III.2.– Etengabeko prestakuntza.

III.2.a) Ikastaroak edo jarduerak ordutan adierazita badaude, hamar orduko kreditu baten baliokidea dela ulertuko da. Izangairen batek ECTS (European Credit Transfer System) kredituetan prestakuntzako ikastaro edo jardueraren bat aurkezten badu, dagokion ziurtagiriarekin batera aurkeztu beharko du kreditu horien baliokidetasuna orduka, unibertsitatearen edo dagokion hezkuntza-administrazioaren akordioaren arabera.

III.2.b) Ez dira baloratuko, inola ere ez, titulu akademikoa, masterra, doktoretza edo graduondoko beste titulu bat lortzea helburu duten ikastaro edo irakasgaiak. Halaber, ez dira baloratuko Espezializazio Didaktikoaren titulua, Irakasteko Gaitasun Ziurtagiria edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Ikasketetan irakasle lanbidean aritzeko gaitzen duten Master Titulu Ofiziala lortzea helburu duten ikastaro edo jarduerak.

III.2.c) Urtarrilaren 21eko 56/2005, urriaren 29ko 1393/2007 edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuek arautzen ez dituzten beste master batzuk III.2 azpiatalean baloratu ahal izango dira.

III.2.d) Ez daude sartuta berrikuntza- eta esperimentazio-proiektuak eta, beraz, ez dira baloratuko.

III.2.e) Izangaiak ikasle edo entzule gisa parte hartu duen prestakuntza-jarduerak bakarrik hartuko dira kontuan; ez dira kontuan hartuko izangaia emaile, hizlari, koordinatzaile, zuzendari edo tutore izandako jarduerak.

III.2.f) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak emandako Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagiriko prestakuntza-jarduera bat egiaztatzeak ez du esan nahi zuzenean merezimendutzat hartuko denik deialdi honetarako; izan ere, III.2 azpiatalean aurreikusitako baldintzen arabera zehaztu beharko da.

III.2.g) Unibertsitateek deitutako ikastaroak unibertsitateek emandako ziurtagiri ofizialen bidez egiaztatu beharko dira.

Ez dira unibertsitateek deitutako ikastarotzat hartuko Hezkuntzan eskumenik ez duten erakundeek (pribatuak edo publikoak) antolatutako ikastaroak, nahiz eta unibertsitate baten babesa edo laguntza izan.

Udako unibertsitateetako prestakuntza-jarduerak unibertsitate batek antolatutakoak badira bakarrik baloratuko dira.

III.2.h) Ez dira inola ere sartzen ikastetxeek beren autonomia pedagogikoa baliatuz zuzenean garatutako prestakuntza-jarduerak.

III.2.i) Ordutan edo kreditutan iraupenik ez duten ziurtagiriak ez dira baloratuko, nahiz eta egiaztagiri horietan egun edo hilabete agertu.

ZIURTAGIRIA

ALDEZ AURREKO IRAKASLE-ESPERIENTZIA (I. ERANSKINEKO I.4 AZPIATALA)

Nik, _____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____),

_____ ikastetxeko zuzendaria naizen aldetik

(IFZ: _____; helbidea: _____), hauxe

ZIURTATZEN DUT:

_____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____)

ikastetxe honetan egin zuela / egiten duela lan:

Irakaskuntza-maila (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa…)	Espezialitatea/irakasgaia/ modulua (Lanbide Heziketaren kasuan, zehaztu emandako lanbide-moduluak)	Hasiera-eguna	Bukaera-eguna

_____, 2026ko _____ren ___(a)

Sinadura: Ikastetxeko zuzendaria

II. ERANSKINA

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Espezialitateak	Titulazioak
Teknologia	Ingeniari teknikoa Arkitekto teknikoa Itsasontzi Makineriako diplomaduna Itsas Nabigazioko diplomaduna Itsasontziko Irrati Elektronikako diplomaduna